**URRETXUKO UDALERRIAN DAUDEN BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI, PASEALEKU ETA ZUHAIZTIAK ZAINDU ETA TXUKUN EDUKITZEKO LAN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

Plegu honen helburua da ondoren agertzen den zerrendaren arabera ezarrita dauden gune bakoitzaren mantenua egitea, hain zuzen ere ondorengo gune edo eremu kategoria hauek:

A: Jadanik badauden berdeguneak, loreontziak, parterreak eta ilaran jarritako zuhaitzak. Sailkapen honen barruan udal igerilekuaren inguruko gunea barne dago; honek berezitutako tratamendua izango du.

B: Kontsolidatu gabeko berdeguneak.

## BERDEGUNEEN ZERRENDA

**I eranskina, herriko planoa, eransten da.**

**A Gunea**

- Aparizio Auzoko Biribilgunea.
- Aparizio Auzoa.
- Irimoko errepide lotunea.
- Ipeñarrieta aparkalekua.
- Ipeñarrieta kalea, eraikinen atzealdea barne.
- Pagoetako lorategia, Haur Eskola. Ikastolarako sarbidea eta jolaslekua.
- Udal Igerilekuak: aparkalekua eta ezpondak.
- Labeaga Kalea eta bertako guneak zein enparantzak, eraikinen atzealdeak barne .

**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LOS SERVICIOS PARA LA PRESTACIÓN DE LOS TRABAJOS PARA LA CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES, PASEOS Y ARBOLADO EXISTENTES EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE URRETXU**

El presente Pliego tiene por objeto el mantenimiento de cada una de las zonas establecidas de acuerdo a la relación que se adjunta, y que comprende las siguientes categorías de áreas:

A: Areas verdes consolidadas, arbolado de alineación, parterres y jardineras. Dentro de este apartado se incluye la zona de piscinas municipales, que estará, además, sujeta a un tratamiento específico.

B: Areas verdes no consolidadas.

## RELACIÓN DE ZONAS VERDES

**Se adjunta, como Anexo I, plano del municipio.**

**Zona A**

- Rotonda Aparicio Auzoa.
- Aparicio Auzoa.
- Nudo carreteras Irimo.
- Aparcamiento Ipeñarrieta.
- Calle Ipeñarrieta, incluso traseras de edificios.
- Jardines Pagoeta, Parvulario, acceso y zona de juegos Ikastola.
- Piscinas Municipales: aparcamiento y taludes zona piscinas.
- Calle Labeaga y zonas y plazas pertenecientes a la misma, incluso traseras de edificios.

- Nekolalde Kalea eta bertako gune zein enparantzak.
- Areizaga Kalea.
- Areizaga Enparantza.
- Kalerrota.
- Bidegorri (Madaia- Barrenkaleko zubia zatia).
- Gernikako Arbola Enparantza.
- Barrenkale.
- Avenida Kalea.
- Iparragirre Kalea.
- Jauregi Kalea eta karkabak.
- Eguneko Zentroko lorategiak.
- Altamira aldea.
- Gainzuri eta inguruak.
- Santa Barbara auzoa y aparkalekua.
- Mundo Mejor auzoa
- San Martin auzoa
- Iparragirre y Hilerrirako Pasealekua.
- Iparragirre 40 - 42 arteko berdegunea.
- Elizalde
- Hilerria eta bere ingurua.
- Matxinporta kalea, saihesbidearekin lotu artekoa.
- Basagasti.
- Lilibaso (Lilibaso eta A-24ren arteko tartea izan ezik).
- Sorginzulo
- Santa Barbarako landa osoa, ezpondak barne (maiatzetik urrira).

**B gunea**

- Santa Barbararako bideko bazterbide eta ezpondak (Altamiratik Etxaburura) eta Irigonerako oinezkoen bidezidorra.
- Irimo-txiki.
- JM Iparragirre Institutuaren ondoko gunea eta Irigondik doan bidezidorra.
- Sagastitxipiko bide-bazter eta ezpondak, baita Etxorlegirako sarbidea.

- Calle Nekolalde y zonas y plazas pertenecientes a la misma.
- Calle Areizaga.
- Plaza Areizaga.
- Kalerrota.
- Bidegorri (tramo Madaya-puente Barrenkale).
- Plaza Gernikako Arbola.
- Barrenkale.
- C/Nueva Avenida.
- Plaza Iparragirre.
- Calle Jauregi y Cárcavas.
- Jardines Centro de Día.
- Zona Altamira.
- Gainzuri y alrededores.
- Grupo Santa Bárbara y aparcamiento.
- Grupo Mundo Mejor.
- Grupo San Martín.
- Calle Iparragirre y Paseo Cementerio.
- Zona verde entre Iparragirre 40 y 42.
- Elizalde
- Cementerio y Anexos.
- Matxinporta kalea hasta entronque con la variante.
- Basagasti.
- Lilibaso ( excepto Franja verde entre Lilibaso y área A-24).
- Sorginzulo.
- Campa Santa Bárbara completa, incluso taludes (de mayo a octubre).

**Zona B**

- Arcenes y taludes carretera a Sta. Bárbara (desde Altamira a Etxaburu) y senda peatonal a Irigon.
- Irimo-txiki.
- Zona junto Instituto J.M. Iparragirre, y senda desde Irigon.
- Arcenes y taludes Sagastitxipi y acceso a Ertxolegi.

- Azkoitirako bideko bide-bazter eta ezpondak, irlatxoa barne.
- Lilibaso eta A-24 arearen arteko berdegunea.
- Santa Barbararako bideko eserlekuak eta oinezkoen bidezidorrak.
- Santa Barbara landa osoa, ezpondak barne (azarotik apirilera) eta pinudia.
- Pagoeta ondoko sailak (Pasiotarrak).

**LEHENENGOA.- ESLEIPENDUNAK UDALARI EGIN BEHARREKO ZERBITZUAK BARNE DITUEN ZEREGINAK.**

Kontratistak egin beharreko zerbitzuen barruan kontratatutako berdeguneak hartuko ditu bere osotasunean ondoko lan hauek bete beharko dituelarik:

1.- Kontserbazioa.

2.- Birjarpena.

3.- Inausketa.

4.- Ereintza, landaketa eta bestelako lanak.

5.- Udal igerilekuetarako tratamendu berezia.

6.- Hondakinen eliminazioa.

Esleipendunak, kopuruan zein prestakuntzan egokia den pertsonala erabiliz, beti bere gain hartuta eta behar den tresneria erabilita, dagokion garaian eta eran ondoren aipatzen diren gutxieneko lanak burutu beharko ditu:

**1.- KONTSERBAZIOA**

Lan hauek dagokion lekuaren baldintzak kontuan hartuta, berdeguneak egoera onean eta ornamentazio maila mantentzeko egingo dira. Honako lan hauek zehazten dira:

- Arcenes y taludes carretera Azkoitia, incluso isleta.
- Franja verde entre Lilibaso y área A-24.
- Zonas de bancos y sendas peatonales de carretera a Santa Bárbara.
- Campa Santa Bárbara completa, incluso taludes (de noviembre a abril), y pinar.
- Terrenos anexos a Pagoeta (Pasionistas).

**PRIMERA.- LABORES QUE ALCANZA EL SERVICIO A PRESTAR AL AYUNTAMIENTO POR PARTE DEL CONTRATISTA.**

El servicio que se ha de prestar por parte del adjudicatario alcanza a la realización en la totalidad de las zonas verdes contratadas de los siguientes grupos de labores:

1.- Conservación.

2.- Reposición.

3.- Poda.

4.- Siembra, plantación y otras labores.

5.- Tratamiento específico para las piscinas municipales.

6.- Eliminación de los residuos.

El adjudicatario, con el personal idóneo en número y competencia profesional, y a su cargo a todos los efectos, así como los equipos de maquinaria y herramientas de todo tipo, atenderá en tiempo y forma debidos la realización de las expresadas labores mínimas que se detallan a continuación.

**1.- CONSERVACIÓN**

El conjunto de labores se realizarán ajustándose a las condiciones particulares para conservar las zonas verdes en perfecto estado botánico y ornamental, que luego se detalla para cada labor.

1.1.- Ureztapenak.
1.2.- Soropila moztea.
1.3.- Soropilen berrereintza
1.4.- Guraizez zein heskai-moztekoaz egindako inausketa eta mozketak.
1.5.- Ongarritzea
1.6.- Profilaketa edo fintzea, eta hartxintxarra, agregakin apaingarriak, pinu azalak, e.a. botatzea.
1.7.- Aitzurtu eta jorratu.
1.8.- Aratu.
1.9.- Garbitu
1.10.- Landare-osasunerako tratamenduak.
1.11.- Heskai eta belarraren itxura mantendu.
1.12.- Oihanpeak garbitu eta orbelak jaso.

1.1.- Riegos.
1.2.- Siega de césped.
1.3.- Resiembra de césped.
1.4.- Recorte y poda con tijeras o cortasetos.
1.5.- Abonados.
1.6.- Perfilado o refino, y vertido de gravilla, áridos ornamentales, corteza de pino, etc.
1.7.- Entrecavado y escarda.
1.8.- Rastrillado.
1.9.- Limpieza
1.10.- Tratamientos fitosanitarios.
1.11.- Conservación del trazado de setos y de perfilado de césped.
1.12.- Limpieza de sotobosque y recogida de hoja.

**1.1.- Ureztapenak**

Landaredia hainbatero ureztatuko da eta urte sasoiak hala eskatuta egunero egingo da. Kontuan hartuko dira egoera edafoklimatikoa eta landare bakoitzaren ezaugarriak bakoitzari bere garapenerako dagokion ur kopurua zehazterakoan.

Landaredian honako elementu hauek sartzen dira:

- Berrereintzak.
- Garaiko landareak.
- Aurreko hiru urteetan landatu edo txertatutako zuhaixkak.
- Azkeneko hiru urteetan sartutako zuhaitz berriak.
- Loreontziak.

Ureztapenak tutu malguez eta ihinztagailuez egingo dira. Ureztatzeko unerik aproposenak goizeko lehen orduak eta iluntzeko azkenak dira.

**1.1.- Riegos**

Los elementos vegetales se regarán esporádicamente o diariamente en las épocas del año que fuese necesario, dependiendo de las condiciones edafoclimáticas y de las especies de plantas existentes de forma que encuentren en el suelo el porcentaje de agua útil necesaria para su normal desarrollo.

Elementos vegetales considerados:

- Resiembras.
- Planta de temporada.
- Arbustos en los 3 primeros años de plantación o trasplante.
- Arbolado joven (en los 3 primeros años)
- Jardineras.

Los riegos se realizarán mediante el uso de mangueras y/o aspersores, siendo el momento más indicado para regar, las primeras horas de la mañana y últimas de la tarde.

Urretxuko udala

Esleipendunaren ardurapen egongo da dauden zein geroago jar daitezkeen ureztapen sareen mantenua. Instalazio hauetan egin behar diren elementu eta materialean aldaketak, esleipendunaren erabilpen txarraren ondorioz ez bada, Udalak hartuko du bere kargu. Horretarako, aldatu beharrekoak Udalak berak horni dezake edota dagokion agiria aurkeztuz esleipendunak berak eskura ditzake.

Erabiltzen den uraren kargua Udalak hartuko du; esleipendunak ez du inoiz beharrezkoa dena baino ur gehiago erabiliko; era berean, gaizki itxitako iturriek edo matxuraren batek sortutako galerarik ez izatea zaindu beharko du.

Aurreko paragrafoan jarritakoa ez-betetzearen ondorioz ur galerarik bada eta higadurak zein beste kalterik sortuko balitz esleipendunaren esku geldituko da kaltetutako gunea bere hasierako egoerara itzultzea. Izandako ur galeraren kostua ere bere gain hartu beharko du.

**1.2.- Soropila moztea**

Belarra kaltetua ez izateko zein belardiaren itxura polita mantentzeko behar duen maiztasunaz egingo da. Hau dela eta, honako garaiera mailak ezartzen dira:

- A gunean ezin da 10 cm-tik gorakoa izan.
- B gunean ezin da 18 cm-tik gorakoa izan. Santa Barbarako gunean udaberrian eta udazkenean A guneari dagozkion baldintzak ezarriko zaizkio.

El adjudicatario se hará cargo de la puesta a punto y del mantenimiento de las redes de riego automático existentes, así como de las nuevas que se instalen. Los elementos y materiales de las citadas instalaciones que hayan de sustituirse y/o repararse, si la deficiencia no es imputable al adjudicatario, correrán por cuenta del Ayuntamiento, pudiendo ser suministrados por éste, o en su caso, por el adjudicatario, previa entrega de los correspondientes albaranes para su abono.

El agua consumida será a cuenta del Ayuntamiento, debiendo el adjudicatario no utilizar más agua que la estrictamente necesaria para el riego, cuidando que no se produzcan pérdidas por bocas de riego mal cerradas o cualquier otro motivo corrigiendo inmediatamente cualquier avería.

Si por el incorrecto cumplimiento de este extremo o de la realización de los riegos (bocas mal cerradas) se produjeran derrames de agua, erosiones del terreno u otros perjuicios, el adjudicatario establecerá por su cuenta la situación primitiva en la zona dañada. Asimismo, correrá de su cuenta el costo del agua derramada.

**1.2.- Siega de céspedes**

Se realizará con la frecuencia precisa para que la hierba no alcance una altura tal que suponga un desdoro del Jardín y un perjuicio neto para el césped, entendiéndose esta altura según las áreas.

- No superior a 10 cm. en áreas A.
- No superior a 18 cm. en área B, a excepción de la campa de Santa Bárbara cuyo césped, en primavera y otoño, mantendrá la altura correspondiente a la zona A.

Lan honen barruan sartzen da belarra biltzea eta ebakinen garbiketa egunean bartan egitea , egoerak hala aginduta ezinezkoa ez bada. Kasu honetan, Udalari honen berri eman eta zikintasunik ez sortzeko neurriak hartuko dira.

Comprende también esta labor el rastrillado y limpieza de los productos sobrantes, que deberá realizarse el mismo día del corte, salvo causas de fuerza mayor. En este caso, se dará cuenta al Ayuntamiento y se adoptarán las medidas necesarias para que no sea motivo de suciedad en la zona.

**1.3.- Soropilen berrereintza**

Soropiletan gune higatuak (arrazoia edozein dela ere) edo belarrik gabekoak agertzen badira udazken eta udaberri hasieran soropila birlandatuko da. Egin beharreko lanak nahi den emaitza lortu arte egin behar diren guztiak izango dira.

1.3.1.- Ureztatu eta moztu, harik eta Udalaren Zerbitzu Teknikoek birlandatutako soropila berreskuratuta dagoela iritzi arte.

1.3.2.- Behar izanez gero, itxiturak jartzea egin beharreko lana burutu arte.

Urteko lehen hiruhilabetekoan txostena aurkeztuko da, eta bertan agertuko dira, esleipendunaren iritziz, esku-hartzeko guneak eta exekuzio aurreikuspena.

**1.3.- Resiembra de céspedes**

Siempre que existan superficies encespedadas incompletas o erosionadas (independientemente de su causa), se efectuará resiembra de césped en el inicio del otoño o en primavera. Las operaciones a realizar serán las que corresponda para conseguir el resultado deseado.

1.3.1.- Riegos y cortes suficientes hasta que los Servicios Técnicos del Ayuntamiento consideren recuperado el césped de la zona objeto de resiembra.

1.3.2.- Establecimiento de cierres hasta su total implantación, si fuera el caso.

Durante el primer trimestre del año se presentará informe que refleje, a juicio del adjudicatario, las zonas a intervenir y el periodo previsto para su ejecución.

**1.4.- Guraizez zein heskai-moztekoaz egindako inausketa eta mozketak**

Landareentzako egokiena den garai eta eran egingo dira; era berean, itxura ere kontuan hartuko da.

A gunea:

- Zuhaixkak: urtean hiru mozketa gutxienez egingo dira.
- Loreontziak: Hala behar izanez gero, landare bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako mozketa.

**1.4.- Recortes y podas con tijeras y cortasetos**

Se realizarán en las épocas y formas precisas para la mejor vegetación de las plantas, así como para su buena conformación.

Areas A:

- Setos: se aplicará un mínimo de tres cortes anuales.
- Jardineras. Poda adecuada a cada elemento vegetal existente, si así lo requiere.

B gunea<u>k:</u>

Izerdi berrian duen garaian gutxienez bi mozketa egingo dira.

Soropilen mugetan, honek lorez jantzitako bideak, bide-ertzak edo parterreak jan ez ditzan, tarteka soropila moztuko da eta, behar izanez gero, sustraietatik erauziko da.

**1.5.- Ongarritzea**

A gunea: Soropilen ongarritzea urtean behin gutxienez egingo da, m2-ko kg bat ongarri organiko edo m2-ko 60 gr. ongarri mineral botata.

Loreontziak eta garaiko loreak: sartzen direnean m2-ko 2 kg ongarri organiko botako zaie.

Zuhaitzak: Sartzerakoan m3-ko 10 kg ongarri organikodun lurra botako zaie.

Zuhaixkak: Sartzerakoan m3-ko 3 kg edo metro linealeko 3 kg ongarri organikodun lurraz egingo dira.

Ongarria Udalaren kargu geldituko da; Udalak berak hornituta edo, behar izanez gero, esleipendunak berak dagozkion agiriak Udalari aurkeztuta.

**1.6.- Pasealeku zein nasetan hartxintxarrak bota eta mantentzea.**

Putzurik ez sortzeko eta arekak zein estolda-zuloak garbi utzita egingo dira. Beharrezko gaiak (herbizidak, hartxintxarrak, azalak, e.a…) Udalaren kargu joango dira; Udalak berak hornituta edo, behar izanez gero, esleipendunak berak dagozkion agiriak Udalari aurkeztuta

Areas B:

Se realizarán dos cortes al año durante el período vegetativo de la planta.

En los límites de las áreas de césped, y con objeto de que éste no invada la zona de caminos, bordillos o parterres de flores, se realizará periódicamente un recorte de la superficie encespedada, arrancando incluso la parte sobrante hasta las raíces.

**1.5.- Abonados**

Areas A: El abonado de céspedes se realizará al menos una vez al año a razón de 1 kg/m$^2$ de abono orgánico o 60 gr/m$^2$ de abono mineral.

Jardineras. y flor de temporada: Se abonará con abono orgánico, 2 kg/m$^{2,}$ al realizar la plantación.

Arbolado: Se abonará al realizar la plantación con una cantidad de 10 kg/m$^3$ de tierra de abono orgánico.

Arbustos: Se abonarán con 3 kg/m$^3$ de tierra de abono orgánico o 3 kg/m lineal al realizar la plantación.

El abono correrá por cuenta del Ayuntamiento, pudiendo ser suministrados por éste, o en su caso, por el adjudicatario, previa entrega de los correspondientes albaranes para su abono.

**1.6.- Perfilado o refino y vertido de gravilla en paseos o andenes.**

Se llevará a cabo rehaciendo los perfiles para que las aguas discurran normalmente sin formación de charcos y se mantendrán limpias las cunetas y sumideros. El material necesario como herbicidas, gravilla, corteza, etc. será por cuenta del Ayuntamiento, pudiendo ser suministrados por éste, o en su caso, por el adjudicatario, previa entrega de los correspondientes albaranes para su abono.

## 1.7.- Aitzurtu eta jorratu

A guneko soropiletan belar txarrak zainketa kulturalez zein eskuz kenduko dira. Herbizidarik erabili behar izanez gero Udal Zerbitzu Teknikoek zein kasutan egin daitekeen erabakiko dute

Loreen zurtoinak sarri aitzurtuko dira belar txarrik ez egoteko eta lurraren egitura egokia mantentzeko. Maiztasuna tokiko eguraldiak aginduko du.

Zuhaitz-txorkoetako belarrak beharrezkoa denean erauziak izango dira inoiz ez moztuak. Udal Zerbitzu Teknikoen oniritziz herbizidak erabili ahal izango dira.

Zuhaitzei adaxkak kenduko zaizkie zuhaitzaren enborretik gorako 30 cm duen zirkuluan.

## 1.8.- Garbiketa

Esleipendunaren agindupean dagoen pertsonalak kontratupean dauden gune guztien garbiketa zorrotz zaindu beharko du; jaiegunen biharamunean bereziki.

Hauen zeregina zera izango da: belar txarrak kendu, orbelak eta inausketa zein mozketek sortutako hondakinak garbitu. Era berean, bertan egon daitezkeen zaborrak zein berdegunearen inguruan egon daitezkeen belar txarrak ere kendu beharko dira.

Esleipendunaren eginbeharra ez da garbiketa eta zaborren biltzera bakarrik mugatzen. Honetaz gain , hauek guztiak jaso egin beharko ditu eta adierazi zaion konpost gunera eraman beharko ditu.

## 1.7.- Entrecavado y escarda

En los céspedes de las áreas A se eliminarán las malas hierbas mediante cuidados culturales o a mano reservando la aplicación de herbicidas para casos en que así lo determinen los Servicios Técnicos municipales.

Los macizos de flor se entrecavarán frecuentemente de tal forma que no existan malas hierbas y que se mantenga la buena estructura del suelo. La frecuencia dependerá de la climatología local.

Las hierbas de los alcorques serán extraídas, nunca cortadas, cuantas veces sean necesarias, pudiéndose utilizar herbicidas previa autorización de los Servicios Técnicos municipales.

Los árboles deberán estar desprovistos de vegetación en un círculo de radio 30 cm superior al del tronco del árbol.

## 1.8.- Limpieza

El personal dependiente del adjudicatario, dedicará una atención constante y meticulosa a la limpieza de todas las superficies objeto de este contrato, en especial, el día siguiente a los festivos.

Esta labor consistirá en la eliminación, tanto de la vegetación de crecimiento espontáneo (malas hierbas), hojas caídas, restos de labores de siega, recortes y podas, como de los papeles, desperdicios y basuras que por cualquier causa puedan depositarse. Asimismo se eliminarán las hierbas crecidas en pavimentos aledaños a las zonas verdes.

La obligación del adjudicatario no se limita al barrido, recogida y amontonamiento de las indicadas materias, sino que ha de completarse con la retirada inmediata de todas ellas, con medios propios o a su cargo, al lugar de compostaje que se le designe.

Zuhaitz-txorkoen garbiketa ere egin beharko du.

Berdegune hauetan kultur, kirol edo edozein motatako ekitaldirik egiten bada, ezinbestekoa izango da bukatu bezain laster garbiketa burutzea, honek ez du hitzartutako prezioaren gorakadarik ekarriko (adibidez, San Juan egunean Santa Barbaran egiten erromeria).

**<u>1.9.- Landare osasunerako tratamenduak</u>**

Esleipendunak, dagokion garaian, ager daitezkeen gaixotasun eta izurriteen aurkako tratamenduak egitera behartuta egongo da, harik eta garatutako gaixotasun edo izurrite hori erabat desagertu arte. Tratamendu horietan erabiliko diren bitarteko eta produktuak eraginkorrak, ez-toxikoak eta gizakiarentzat kaltegarriak ez direnak izango dira.

Tratamenduak egiteko ordutegia zehazterakoan auzokoei kalte gutxien egien dien uneak aukeratuko dira. Era berean, haizerik ez dagoen garaian egingo dira.

Erabili beharreko produktuak Udaleko Zerbitzu Teknikoek emandakoak izan litezke

**<u>1.10.- Heskai eta soropilen ezarpenen kontserbazioa</u>**

Esleipendunak egun heskai eta soropilek duten ezarpena mantenduko du, modu naturalez, erabilpen okerrez umeen jolasez, jende gehiegiren pilaketez edo lanak oker egiteagatik sortutako kalteak bere gain hartu beharko ditu.

También se incluye la limpieza de alcorques de todo objeto extraño.

Cuando se produzcan actos culturales, sociales, deportivos o con cualquier otro carácter extraordinario en las zonas verdes objeto de conservación, será obligatoria la limpieza total de la zona afectada, de forma inmediata a la realización del acto sin que esto suponga un incremento del precio por contrata (caso de la campa de Santa Bárbara-Romería de San Juan).

**<u>1.9.- Tratamientos fitosanitarios</u>**

El adjudicatario quedará obligado a realizar, en las fechas oportunas, los tratamientos curativos de cualquier enfermedad o plaga que pudiera aparecer, así como aquellos otros encaminados a combatir hasta su total extinción la enfermedad o plaga una vez desarrollada. En la aplicación de estos tratamientos se utilizarán medios, productos y procedimientos modernos, eficaces y no tóxicos, ni molestos para las personas.

Las horas de tratamiento deberán ser tales que no causen perjuicios al vecindario. En cualquier caso se tratará en ausencia de viento.

Los productos podrán ser suministrados por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento.

**<u>1.10.- Conservación del trazado de setos y de perfilado de césped</u>**

El adjudicatario mantendrá el actual trazado de setos y perfiles de césped, corriendo a su cargo los desperfectos o alteraciones que se originen por causas naturales o por el mal uso de las personas, concentraciones o juegos de los niños y por la incorrecta realización de las labores.

**1.11.- Oihanpearen garbiketa eta orbelen bilketa**

Gune bakoitzeko zonetako sasi, egurrak eta orbelak garbi egongo dira sute eta izurriterik gerta ez dadin, zuhaitz txikiak eta zuhaixkak errespetatu beharko dira.

**2.- BIRJARPENA**

Jardun hauetan honako elementu hauek ordezkatu, berritu edo birlandatuko dira: edozein motatako landareak, garaiko landareak, zuhaixkak, bestelako zuhaitzak eta kalteren bat izan duten soropilak. Eginbehar hauek guztiak esleipendunak hartu beharko du bere kargu landarediaren egoera txarra zein ihartzea ureztaketa, mozketa, tratamendu eza edo esleipendunak berak egindako birjarpen okerren ondorioz izaten badira.

Arestian aipatutakoen ondorioz izan ezean, Udalak hartuko ditu bere kargu, berak hornituta edo, bestela, esleipendunak berak ordain-agiri guztiak Udalari emanda.

Atal honetan sartzen da ere:

Birjarpena beharra ikusi bezain laster egingo da, eta landare mota horren garaia kontuan hartuta.

Hiru hilez behin,

**2.1.- Zuhaiztiak**

Ihartutako zuhaitzak edo, enpresa esleipendunaren txosten teknikoaren arabera, eliminatu behar direnak,

**1.11.- Limpieza de sotobosque y recogida de hoja**

Las áreas forestales comprendidas dentro de cada zona se mantendrán limpias de zarzas, madera muerta y hojarasca, como medida preventiva de incendios y proliferación de plagas, respetándose el estrato arbustivo y arbolado de pequeño tamaño.

**2.- REPOSICIÓN**

Estas labores consistirán en la sustitución, renovación o resiembra de las plantas vivaces, de temporada, arbustos, árboles y zonas de césped que hubieran perdido o mermado su carácter ornamental. Dichas labores serán a cargo del adjudicatario, en su totalidad cuando la muerte o el precario estado de las plantas sea por causa de anomalías en riegos, daños de siega, carencia de tratamientos, o marras producidas en las reposiciones de plantas suministradas por él mismo.

De no darse tales circunstancias serán a cargo del Ayuntamiento, pudiendo ser suministrados por éste, o en su caso, por el adjudicatario, previa entrega de los correspondientes albaranes para su abono.

Se incluye, también, en este apartado
La reposición se realizará inmediatamente a la constatación de la necesidad, y de acuerdo a la temporada en que se deba realizar la plantación atendiendo a la especie de que se trate.

Trimestralmente,

**2.1.- Arbolado**

Los árboles muertos o aquéllos que, de acuerdo al informe técnico de la empresa adjudicataria, se entienda que se deben

Urretxuko udala

kontratistak botako ditu, beti ere Udal Zerbitzu Teknikoek esandako moduan, eta aldez aurretik horiek oniritzia emanda. Era berean, Udalak adieraziko dio zuhaitzari zein erabilpen eman behar dion.

Zuhaitzaren tamaina zein kokapenarengatik ezohiko bitartekoak erabili beharko balira, hauek Udalaren kontura joango dira.

Esleipendunak bere kargu hartuko ditu kontratupean dauden kale eta berdeguneetan ordezkoak edo berriak jartzea.

Zuhaitzak eta zuhaixkak jartzea esleipendunak egingo ditu beti Udal Zerbitzu teknikoek araututakoaren arabera. Hauek kasu bakoitzean egoki ikusten dituzten babesak, lur aldaketak, landaketa garaiak zehaztuko dituzte.

Landareak Udalaren kontura izango dira, eta Udalak berak hornitu ditzake, edo hala badagokio, esleipendunak, aldez aurretik ordainketarako albaranak entregatuta.

## 2.2.- Lore parterreak

Garaiko landareei dagokienean birlandaketa udazkenean eta udaberrian egingo da eta esleipendunaren kargu izango da; Udal Zerbitzu Teknikoek zein landare mota sartu behar den zehaztuko dute. Era berean, Zerbitzu hauek hala iritzita parterreak handitzea, murriztea edo berriak jarriko dira, hauek ere esleipendunaren kontura izango dira. Landareak Udalaren kontura izango dira, eta Udalak berak hornitu ditzake, edo hala badagokio, esleipendunak, aldez aurretik ordainketarako albaranak entregatuta.

eliminar, serán derribados por el contratista en la forma que le sea indicado por los Servicios Técnicos municipales, y con su Vº Bº previo, estando asimismo obligado a darle al árbol la utilidad que crea conveniente el Ayuntamiento.

En el caso de que, bien por la envergadura del árbol, o bien por su ubicación, fuera necesaria la utilización de medios extraordinarios, éstos correrán a cuenta del Ayuntamiento.

Correrán a cargo del contratista las labores de sustitución o de nueva instalación de arbolado en las zonas verdes y calles objeto de este contrato.

Las labores de plantación de árboles y arbustos las deberá realizar el contratista de acuerdo con las indicaciones de los Servicios Técnicos del Ayuntamiento, los cuales indicarán en cada caso las protecciones, enmiendas, cambios de tierras, época de plantación, etc., que crean convenientes.

Las plantas correrán a cuenta del Ayuntamiento, pudiendo ser suministrados por éste, o en su caso, por el adjudicatario, previa entrega de los correspondientes albaranes para su abono.

## 2.2.- Parterres florales

En lo referente a las plantas de temporada, la replantación correrá a cargo del contratista y se efectuará en otoño y en primavera, fijando los Servicios Técnicos del Ayuntamiento las especies a emplear. Asimismo dichos Servicios podrán aumentar, disminuir o crear nuevos parterres florales, corriendo con cargo al contratista las operaciones de realización de estos supuestos. Las plantas correrán a cuenta del Ayuntamiento, pudiendo ser suministrados por éste, o en su caso, por el adjudicatario, previa entrega de los correspondientes albaranes para su abono.

**3.- INAUSKETA**

Inausketa beti dagokion garaian egingo da. Mozketak garbiak izango dira eta moztutako adarrak handiak direnean beharrezko tratamenduak emanda..

Kontuan hartu beharko da:

a) Koniferak inausi beharrean, adarren puntak matxardez eutsi eta ihartutako adarrak kendu behar dira.

b) Ahal dela, 10 cm baino lodiera handiagoko adarrak ez dira moztuko; hala gertatuko balitz, fungizida-orbaintzaile berehala emango zaie.

c) Udaberrian ateratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak udaberrian loratu ondoren inausiko dira.

d) Udan loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak neguan inaus daitezke.

e) Apaingarri diren zuhaixkak eta tamarindoak udazkenean inausiko dira.

f) Topiaria erakoak, ahal dela, izerdi berriko garaian eta hiru zentimetro baino gehiago dutenean inausiko dira.

g) Inausketaren helburuetako bat landareak ahalik eta aireztapen eta eguzki gehien izatea izango da.

h) Kentzen diren adarren mozketa euren hasiera-hasieratik egin beharko da.

i) Inausketaren bidez ihartutako zati eta adar guztiak kendu beharko dira.

j) Garaiko landare eta zuhaixkek dituzten lore ihartuak kendu egin behar dira, fruitu apaingarria dutenak izan ezik.

**3.- PODA**

